

EMAKUMEEN FUTBOLA

Egunerokorako hobekuntza-proposamenak

RS!
Realsocialismo!

Realeko zaletu eta
akziodunen elkarte

Asociación de aficionados y
accionistas de la Real Sociedad

Aurkibidea

Sarrera	3. orr.
1. Irisgarritasuna	3. orr.
2. Partida eguna	4. orr.
3. Marketinga	5. orr.
4. Segurtasuna	7. orr.
5. Profesionalizazioa	8. orr.

Eskertza

Realsocialismo!k emakumezkoen futbolaren egunerokoa jarraitu eta txosten honi ekarpenak egin dizkietenen lana eskertu nahi du.

Sarrera

2004/05 denboraldian taldea sortu zenetik eta 2006/07an Emakumezkoen Lehen Mailara igo zenetik pausuak bata bestearen atzetik eman dira. Azken urtean klubak azpiegitura sendotu du bigarren taldea sortuta eta Anoetako ateak ireki ditu hiru partidarako: Athletick-en aurkako bi derbi ligan eta 18/19 denboraldiko Erreginaren Kopako itzuliko partida Sevillaren aurka.

Ekintza puntualez gain, Realsocialismo!-tik epe ertain eta luzera estrategia planifikatua beharrezkoa dela uste dugu. Dokumentu honen helburua Real Sociedad klubeko emakumezkoen futbol sekzioaren egunerokorako hobekuntza-proposamenak aurkeztea da.

1. Irisgarritasuna

Egun, emakumeen taldeak etxeko partida gehienak Zubietan jokatzen ditu. Instalazioak berak ez dira irisgarriak gerturatu nahi duen ikuslearentzat. Izan ere, Zubietara heltzeko aukera bakarra autoa da. Garraio publiko bakar batek ere ez du Donostiarekin lotzen edo gertu dauden Zarautz, Lasarte, Hernani, Andoain edo Urnieta bezalako herriekin, are gehiago bertan emakumeen futbolaren aldeko lana eta oso ona egiten denean.

Lehen oztopo hau oso garrantzitsua da. Are gehiago Zubietara sartzeko dauden arazoak edo aparkalekua gehituta. Bertaratzen diren gehiengoak autorean aldeko apustua egiten dutenez —batik bat aurrez aipatutako garraio publiko faltak bultzatuta— zelaiko azpiegituraren gabeziak begi bistara geratzen dira. Eta honek aurrerago garatuko den 'match day' edo partidako esperientzia kontzeptuan eragin zuzena du.

Ohikoa da Zubietara daraman errepideko bazterretan pilatutako autoen irudia edota trafikiko andanagatik gainezka dauden segurtasun langileek euren jarduna hain bide estuetan egiteko dituzten

zailtasunengatik. Zubietarako sarbideak —bai ingurabideko errotondatik, bai hipodromokotik— ez daude pentsatuta halako trafiko fluxua jasateko.

Aipatutako guztiak autobus anezken beharra nabarmentzen du, mutilen taldearen edo GBCCren partidetan daudenak bezalakoak. Aurrez ezarritako esperientziak, hain gertu daudenak gainera, izanda ez da zaila egiten ikusleek garraio publikoa erabili ahal izateko aukerak diseinatzea. Gainera, honi esker, autoa ez duten erabiltzaileek edo gerturatuko duen inor ez dutenentzat Zubietara heltzeko aukera eskainiko litzateke.

Fundazioak pasa den ekainaren 9an bere eguna antolatu zuen instalazioetan eta arazo hau saihesteko klubak autobus anezkak ezarrituz arazo horni aurre egiteko. Realsocialismo! lantaldetik eskaintza hau egunekora hedatzea proposatzen dugu.

2. Partida eguna

Aurreko atalean zehaztu den bezala, Zubietan jolasteak partida esperientzia nahi baino hotzagoa izatea dakar eta Anoetan jokatutako hiru partidekin alderatuta ez hain bizi eta atsegingarria. Klubak partida guztiak edo gehiengoa Anoetan izateko apustua egin arte, Zubietan jokatuko diren partidei begira hobetzeko esparru morderoa dago. Gainera, eraldaketa horiek onuragarriak izan daitezke Sanseren, C taldearen, harrobiko talde ororentzat edo Fundaziotik antolatutako #ElkarriOn txapelketa edo antzeko jardunaldietarako.

Jakina da festa giro batek partida esperientzia hobetzen duela. Apurka-apurka Zubitako harmailak betetzen doaz jolasten den zelaia bat ala beste izan. Zorionez. Baina, hala ere, hobetzeko hainbat esparru daude.

Lehenik, partida guztiak edo horien gehiengoa z1 zelaira eramatea. Edukiera gehien duen zelaia da eta irisgarriena. Z7 zelaira heltzeko aldapa igo behar izatea saihestuko luke, ikusle batzuk ez bertaratzeko arrazoi izan

daitekeena. Gainera, talde aurkariaren zaletuak bertaratzen badira Zubietak haientzat leku zehatz bat eskaintzea ahalbidetuko luke (aholkatzen den bezala) eta horrela partiden segurtasuna bermatuko litzateke. Hala izan zen 18/19 denboraldiko azken partida Atlético de Madriden aurka.

Bigarrenik, megafonia sistema bat ezartzeak kalitate jauzi nabarmena izango zen. Parekorik gabekoa. Zubietako partidek bero apur bat gehiago behar dute aurreko uneetan, atsedendietan edo partida amaieretan. Era berean, megafonia partidaren zehar erabil liteke. Speaker edo esatari bat izanda hamaikakoak esan litezke partiden hasieran, golen berri eman —egun, batzuetan, gola zeinek sartu duen jakiteko aukera bakarra sare sozialak kontsultatzea da edo telebista bidez partida ikusten dagoen norbaiti galdetzea—, izandako aldaketak zein diren esan, etab.

3. Marketinga

Emakumeen taldeak Primera Iberdrola Ligako gainerako taldeekin buruz buru lehiatzea nahi baldin badugu beharrezkoa da marketing esparruan jauzi bat ematea. Realsocialismo! lantaldetik kluba jada aipatuko diren ideiak lantzen ariko dela ulertzen dugu, baina gizarteratzeko asmoz, hemen doaz jarraian:

Web bidez partiden emankizuna

Egun Realak Zubietan jokaturako partidak webgunearen bitartez igortzen ditu. Emakumeen futbola sustatzeko pausu handia da eta hala azpimarratu nahi dugu. Hala ere, hobetzeko hainbat esparru daudela ulertzen dugu, are gehiago jada esperientzia interesgarriak daudenean. Horietako bat da Valencia CF taldeak duen aplikazioa. 18/19 denboraldian zehar partidak webgunearen bitartez ikusi dira, baina inongo unetan ez da eskaini denboraren edo markagailuaren berri ematen zuen errotulurik. Gainera kamera finkoa eta bakarra da, partidako jokaldi onenak, golak edo une puntualetan gertuagoko planoak eskaintzeko aukerarik gabe.

Hamaikakoen errotulurik ere ez da existitzen. Aipatutako aplikazioaren bitartez erabiltzaileak partida informazio guztiarekin jarraitzeko aukera zuen: narratzaile bat, komentarista bat —bertako irrati batekin sinatutako hitzarmenari esker—, une oro partidaren denbora eta emaitza eta 2-3 plano ezberdinekin errealizazioa.

Merchandisinga

Egun ez da posible emakumeen sekzioko ekipaziorik erostea. Aukera bakarra mutilen taldeko kamiseta erostea eta pertsonalizatzea da¹. Realsocialismo! lantaldetik klubak dituen salmenta puntuetan —Anoetako zein Elkano kaleko denda fisikoetan, webguneko online dendan zein partida batzuen egatik ezarri diren espazio puntualetan— salgai egotea ezinbestekotzat jotzen dugu nahi duen orok erosteko aukera izan dezan eta denboraldi honi begira akatsa konpontzera animatzen dugu kluba.

Publizitatea

Emakumeen sekzioa sustatzeaz ari bagara, beharrezkoa da bertara diru gehiago bideratzea. Alde batetik, aurrekontuko partida handituz eta, bestetik, sekzioa bera baliabide ekonomiko gehiago sortzeko gai eginda. Azken kasuan bi bide argi daude: aurrez aipatutako merchandisinga eta Zubietako publizitate hesi eta bestelako euskarrien komertzializazioa. Korner festibalean antolatutako hitzaldian argi geratu zen bezala, emakumeen futbolak berezko balio nabarmenak ditu, oso baikorrak eta gizartean oihartzun eta onespren handia dutenak. Realsocialismo!-tik ustiari beharrezko bidea dela uste dugu, lurraldeko enpresei hedatzen ari den proiektu bati lotzeko aukera eskainiz, gizartean eragin handia duena eta, gainera, sekulako kirol emaitzak lortzeko gai izan dena.

¹ Azken kontsulta 2019ko irailaren 24an egina

4. Segurtasuna

Lehen taldearen profesionalizazioaz edo partida jokatu den baldintzen hobekuntzaz gain, segurtasuna oso kontuan hartu beharreko elementua da emakumeen sekzioko azpiegitura sustatu nahi bada.

Kirol profesionaleko ekitaldi orok segurtasuna du arazorik egongo ez dela bermatzeko. Aitzitik, Zubietan ez da hala izan hainbat kasutan. Agian bai instalazioen sarrera nagusian, baina ez zelaira bertara sartzeko unean. Apena dago edukieraren kontrolrik —honek dakarren arriskuarekin— eta hedala eta harmailaren arteko gertutasuna kontuan izateko beste elementu bat da. Orain arte ez da gertakaririk izan, baina horrek ez du esan nahi etorkizunean arazorik egongo ez denik.

Esparru honetan Anoetan jokatu hiru partiden bilakaera azpimarratu behar da. 2017/18an jokatu lehen derbian aurreikuspen guztiak motz geratu ziren eta hainbat zaletuk ilara egin behar izan zuten estadiora sartu ahal izateko. Bigarren partidaren informazio gehiago egon zen klubaren aldetik eta itxaron beharreko epeak asko murriztu ziren. Hala ere ez zen kontrol askorik egon ateetan eta bakoitzean zeuden tornuak ez ziren erabili. Hauek hirugarren eta orain arte Anoetan izan den azken partidaren erabili ziren.

Desiragarria litzateke, bertan jokatu diren etorkizuneko partidetan, mutilen lehen taldean erabiltzen den prozedura imitatzea. Argi dago, bata eta bestearen arteko ezberdintasunak kontuan izanda. Egungo Administrazio Kontseilutik emandako babesaren eta klubaren profesionalizazioaren adibide paregabea litzateke.

5. Profesionalizazioa

2018ko abenduan Realak lehen taldeari eskaintako kontratuen polemikak eztanda egin zuen. Realsocialismo! lantaldetik ezinbestekotzat jotzen dugu klubak, beste behin ere, sekzioarekin konpromiso argia erakustea eta baldintza duin eta egokiak eskaintzea taldekide guztiei. Eskaria oso hedatua dago zaletuen artean eta hainbat jokalarik eskaria ere mahai gainean jarri dute.

Oraindik ez da adostu emakumeen futbolaren hurrengo urteak markatuko dituen hitzarmena. Zentzu horretan, Realak aukera paregabea du bere proiektua argi uzteko, honen kalitatea eta zuzendaritzaren zalantzarik gabeko babesa. Ekintzak klubak duen ikuspegiaren eskutik joan behar dira, harrobiarekiko apustu argiarekin —atal honetan bigarren taldearen sorrera funtsezko pausua izan da— eta anbizioarekin. Realsocialismo!-tik kluba ildo honetan lanean ari dela ulertzen dugu baina hurrengo urteei begira parez pare topatuko dugun panorama oso argia ez denez, proiektua epe ertain eta luzera egonkortzeko apustu argia eskatzen diogu, aldaketa gidatzeko pausuak emanaz eta Primera Iberdrola Ligan erreferente argia izateko.